

BAIGORRIKO BAXERAK.—Zeramikaz arduratzen den bantentzat bere garrantzia duen atsotitz bat bada Baigorri aldean, baxerak direnez medio. Oihenarten atsotitzetan agertzen da lehenik, baina guk gure zalantzak ditugu ondo jasoia ote denez.

Oihenarten *Atsotitzak eta neurtitzak* liburua Larresororen edizioa baizik ez dugu eskuetan, 1971an Donostian argitaratua eta uste dugu zuzen jasoia ekarriko duela 66. atsotitzan:

*Baigorri baxera lurrez,  
nik haragei nuenean urrez.*

Jean Elissalde «Zerbitzari»-ren bilduman, *Atsotitz, Zuhur-hitz eta Erran-zahar* (1936) deritzaion hartan, 116. atsotitzan bera dela dirudi, baiña zentzuz desberdina da:

*Baigorri baxera urrez,  
ni harat orduko lurrez.*

Honako era edo esan nahi hau ordea gipuzkoarren Urrutiko intxaurrak... bezalako da.

Oihenarten, lurrezko zena urrez bihurtzen du, eta Zerbitzarienean alderantziz, urrezko zena lurrez. Beraz, bada diferentziarik.

*Herria* astekariaren zuzendari den Emile Larre baigorriarrai beste honako hauek jaso nizkion, Baigorri inguruetako populuak erraten denez:

*Baigorri baxerak urrez,  
harat joan eta lurrez.*

Baina, baigorritarrek aldiz beste honako hau erabiltzen omen dute:

*Auzoan baxerak urrez,  
harat joan eta lurrez.*

Zerbitzariren bildumakoaren zentzu berekoak dira horiek, atsoitz bezala, baina pluralez erabiltze horrek adibide zalantzagarri bat eskaintzen digu, baxera soilean nekezagoa deritzaguna, baxerakoa urrea beharrez lurra izatea edo baxerak heurak urrezkoak edo lurrezkoak. Zeramika zaleontzat hala baltiz hobe, zeramikagileen aztarna izan deitekeanez, baina zoritarrez bestera dela dirudi: ontzikoa eta ez ontzia.

\* \* \*

LAPITZAREN ARAUAK?—Nork pentsa zezakean holakorik ikusterik eta irakurtzerik? Ba, *Argia* aldizkariaren 980. zenbakiaren 24. orrialdean honako hau irakurtzera iritsi ginen: «Haurrak ikusten duena lapitzaren arauera», J. L.-ek izenpetutako lan batean.

Baina, testu osoa irakurriz ohartu gara «lapitzaren bidez bere irudimenaren (edo irudimenezko) zentzua» edo holako zerbait esan nahi zuela.

Hortariko hutsak, egia esan, edonork noiznahi egiten ditugu, baina maisukeriz ari direnengandik ez genuen holakorik espero.

\* \* \*

MANUELTXO.—Maiz entzuna dugu ijito jendeak eta Espainiako zenbait tokitan, bereziki hegoaldean, Jainkoari eta batez ere Jesus Haurrari, Manuel izena ematen diotela. Baina garai batean Euskal Herrian bertan ere hala ez ote? Adibidez, Bizkai-